

GORKA ARTOLA ALBERDI Begarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

Herritarren Batzordeak egindako proposamenari jarraituz, 2023ko otsailaren 17an emandako Dekretu baten bitartez erabaki zen 2023ko apirilaren 1ean ospatuko den Erramu Zapatuko ferian elikagaien postuak jartzeko baimenak eta baita artisautza postuak jartzeko baimenak jartzeko deialdia egitea eta deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

Oinarrien arabera eskaerak aurkeztu zitezkeen bi eratarata: ferixabergara@bergara.eus korreoa bidalita edo udaletxeko BAZera (Herritarren Arreta Zerbitzura) bertaratuta.

Emandako helbide elektronikoak arazoak eman ditu. Beraz,

ERABAKI DUT:

Eskaerak aurkezteko epea luzatzea 2023ko martxoaren 6ra arte (egun hori barne).

Hau da Alkateak agindu eta sinatu duena, Bergaran 2023ko otsailaren 27an; eta nik, Idazkariak, ziurtatua.

